

Donostia, 2026ko martxoaren 18a

---

## UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, UDAL ERAIKINEN GARBIKETA-KONTRATUARI BURUZKOA

Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua babesean, udal-eraikinen garbiketa-kontratuaren I. eta II. loteei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Zerbitzu Orokorren Batzordearen otsaileko bilkuran Gobernantza Irekiko eta Kulturako zinegotzi ordezkari Ana López aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Batzordean adierazi genuen moduan, udal-eraikinak garbitzeko kontratuaren I. eta II. loteak ezohiko luzapenean daude; izan ere, bi kontratuak amaituta daude, eta horietako batean ere ez dago aurreikusita beste luzapenik egiteko aukerarik.

Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien arabera, ezohiko luzapena egin da kontratuen xede den zerbitzua ezinbestekoa delako Udalak gaur egun duen beharrari erantzuteko. Beraz, funtsezkoa da zerbitzu hori ematen jarraitzea.

Hau da, udal-eraikinen garbiketa funtsezko zerbitzu bat da, eta Udalak ezin du zerbitzu hori alde batera utzi. Hain zuzen ere, pandemian funtsezkotzat jo zen zerbitzuetako bat izan zen, COVID-19aren transmisioa saihesteko espazioak garbi edukitzeak zuen garrantziagatik; horregatik, garai hartan zerbitzua indartu zen.

II. loteari dagokionez, Gizatzen SA enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren kudeaketa ezin txarragoa egin du, eta askotariko intzidentziak izan dira: soldata-eskala bikoitza; fitxaketa-sistema; gaizki egindako nominak; ordu okerrak; enpresak langileen arduradunak etengabe aldatzea; langileek salaketak jarri dituzte epaitegietan...

Askotan adierazi dugun moduan, gure taldearen ustez, funtsezko zerbitzu horrek kudeaketa zuzenekoa izan beharko luke, eta ez kontratatua. Ez dago frogatuta Udalak enpresa pribatu bat kontratatu gabe zerbitzua eman ezin duenik. Gainera, kontratazioak izapide eta epe luzeak dakartza, baita errekursoak ere KEAOn aurrean, eta horrek are gehiago luza ditzake epeak. I. eta II. loteen kasuan, kontratuetan ezarritako luzapenak amaitu, eta ezohiko luzapenak egin behar izan dira, ematen den zerbitzua funtsezkoa baita.

Behin baino gehiagotan planteatu diogu udal-gobernuari udal-eraikinen garbiketa-zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa bere gain hartzeko aukera, ez baitugu uste horretarako inolako eragozpenik dagoenik, beste udalerrri batzuetan beste zerbitzu batzuekin egin den moduan.

Izan ere, kontratazio-espeditentean honela justifikatzen da kontratua: *“Udalak ez dauka baliabide material eta giza baliabide nahikorik udal-eraikin publikoak zuzenean garbitzeko eta higiezin horretara sartzen diren pertsona guztien higiezia eta osasuna babesteko baldintzak bermatzeko”*. Hala ere, ez dago txosten zehatzik Udalarentzat zerbitzu hori emateko baliabide materialak eta giza baliabideak izateak zer ekarriko lukeen aztertzen duenik.

Era berean, batzordean, zinegotzi ordezkariak onartu zuen ez zutela inolako azterlanik udal-eraikinen garbiketa kanpoko enpresa baten bidez egitea zuzenean egitea baino eraginkorragoa eta efizienteagoa dela aztertu eta hori justifikatzeko. Horrek esan nahi du zerbitzu hori kontratatzea erabaki politiko bat baino ez dela.

Hori guztia dela eta, aurkezten dugu kontrol mozio hau:

---

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio txosten tekniko arrazoitu bat aurkez dezala, udal-eraikinetako garbiketaren kontratazioa zuzeneko kudeaketa baino eraginkorragoa eta efizienteagoa dela justifikatzeko.

Arantza González García  
*Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia*